

Merkataritza  
eta ostalaritza  
euskaraz

# EUSKARA LORATZEN ARI DA **GETXOKO 269** SALTOKITAN

**EUSKARA SUSTATZEKO KONPROMISOA HARTU DUTE EUSKARAREN  
LAGUNA SALTOKIEN SAREAREKIN BAT EGINDA.**

Enpresek eta bezeroek egunero ureztatzen dute landatutako euskararen hazia, eta zaintza zein lan-ahalegin horri esker, herri euskaldunagoaren bidean ari gara, hurrengo belaunaldiak uzta jaso dezaten. Azken urtean 17 enpresa gehiago gehitu dira euskararen lorategira.



**Eskaneatu QR kodea eta sartu gure mapan.** Ezagutu Euskararen Laguna Saltokien sarea osatzen duten saltokiak!

Zerbitzu hauek dituzte eskuragarri Getxoko saltokiek urte osoan zehar:



## ERROTULAZIORAKO DIRULAGUNTZAK

Euskaraz: errotulu bakoitzeko, gehienez **360€**.

Ele bietan: errotulu bakoitzeko, gehienez **180€**.



## DOAKO ITZULPEN ZERBITZUA

Getxoko edozein negoziok du testuak euskaratu ahal izateko Udalaren doako zerbitzua.



## MAKETATZE- ETA INPRIMATZE-ZERBITZUA

Kartel pertsonalizatuak, sasoi zehatzetarako kartelak, material ugaria...



## EUSKARA IKASTAROAK

Getxoko euskaltegiek merkatariei eta ostalariei egokitutako euskara ikastaroak eskaintzen dituzte.

Informazio gehiago nahi nahi baduzu, jar zaitez harremanetan **688 655 112** edo [gehi@getxo.eus](mailto:gehi@getxo.eus)



**AKOTA ESTUDIOA**  
Zuriñe Unzueta - Arkitektoa  
**ROMO**

Jendeari jakinarazi beharko litzaioke zerbitzu asko direla euskaraz jaso daitezkeenak. Euskaraz hitz egin diezaguketela dakitenean, poz handia hartzen dute.



**TRIKU TABERNA**  
Leire Mijangos - Bezeroa  
**ALGORTA**

Tortilla-pintxoak euskaraz eskatu, eta gustura ordaintzen dut. Pintxorik goxoenak, euskaraz eskatzen duguna!



**ZURIKALDAI**  
Kimetz Garate - Okina  
**NEGURI**


Euskara erabiltzearen hautua, gure denda bera bezala, familiaratik datorkigu. Betidanik eskaini dugu zerbitzua euskaraz eta gero eta bezero gehiago euskaraz zuzentzen zaizkigu orain, erosotasunez.



**CROISSANTERIE**  
Patxi Lasa - Bezeroa  
**ANDRA MARI**

Urteak daramatzat herriko dendetan lehen hitza euskaraz egiten eta sorpresa politak izan ditut! Euskaraz hitz egiten ez duen jende askok ere ulertu egiten zaitu, eta elkarrizketa elebidunak izaten ditugu.

## Zein sektoretan aurki ditzakezu Euskararen Laguna Saltokiak?



## Zein da 2024an Euskararen Lagunen Saltokien egoera?


Euskararen Laguna diren saltokietan 711 langile inguru ari dira, euskaraz gero eta gehiago egiteko konpromisoa hartuta. Horietatik gehienek, %44, euskaraz egin dezakete arazorik gabe eta beste askok, %16, ulertu egingo dizute.

Ausartu euskaraz egitera **Euskararen Laguna diren saltokietan!** Laurden batek beti dauka aukera zerbitzua euskaraz emateko eta gehienek euskaraz eman dezakete zerbitzua uneren batean.

Bai, ordutegi osoan: %31

Bai, baina ordutegi osoan ez: %45

Ez: %24



## UDABERRIAN LORATUKO DIREN EKIMENAK

### KAISHOP!

*Euskara + 0 km = kalitatea* da aurtengo leloa eta argi adierazten du kanpainaren helburua: euskararen erabilera eta herriko merkataritza sustatzea. Maiatzean zehar garatuko da KAISHOP! gure udalerrian.

#### Euskaraz eskatzeak saria dauka!

Eskatu euskaraz gure Euskararen Laguna Saltokietan eta hainbat opari jasoko dituzu.



#### Kaishop ibiltaria

Getxoko kaleetatik KAISHOP! lehiaketarekin topo egin ahal izango duzu eta hainbat sari irabazi. Kanean KAISHOP! banderatxoak ikusten duzunean, hurbildu eta parte hartu lehiaketan. Gainera, aurten Getxoko hainbat Euskararen Laguna Saltokik **emandako 10 sari-sorta zozkatuko dira parte-hartzaileen artean!**



**Euskara + 0 km = kalitatea**



**Euskara + 0 km = kalitatea**

### EUSKARAZ BARRA-BARRA



Euskaraz norekin? Non? Noiz? Eusko Jaurlaritzak sortutako marka berri honek lagunduko dizu bidea argitzen, ikusten duzun tokian euskara erabiltzeko aukera bermatuko baitizu uneoro.

Getxon 78 dira gaur egun Jaurlaritzaren E// (Euskaraz barra-barra) jaso duten saltokiak, eta erraz identifikatuko dituzu: ikur hau ikustean, sartu eta egin euskaraz lasai.

#### IHES-GELA

Euskaraz barra-barra egitasmoaren baitan, 17. logela ihes-gela mugikorrek Getxo bisitatuko du.

- Maiatzaren 10etik 12ra Areetako Geltokia plazan.
- Maiatzaren 17tik 19ra Algortako Geltokia plazan.



Parte hartzea doakoa da eta txanda [euskarazbarrabarra.eus](http://euskarazbarrabarra.eus) webgunean erreserbatu ahal da.